

SEOUL INTERNATIONAL WINES & SPIRITS EXPO

SIWSE 2026

BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2026ko ekainak 18-20
- **Tokia:** COEX Hall C, Seoul, Hego Korea
- **Maiztasuna:** urtero
- **Nori zuzenduta:**
Mahastizaintza- eta ardogintza-
industriako profesionalak
- **Izena emateko epea:**
2026ko urtarrilaren 20
- **Azokaren webgunea:**
www.siwse.com

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Euskal Elikagaien Industriaren kanpo-sustapenari laguntzeko jardueren barruan, HAZI Fundazioaren bitartez, euskal enpresek **SIWSE 2026 - Seoul International Wines & Spirits Expo** azokan, Seoulen, **2026ko ekainaren 18tik 20ra** bitartean, batera parte hartzeko aukera antolatzen du.

AZOKAREN IZAERA

Hego Korea Asiako merkaturik dinamikoenetako eta proiektzio handieneko bat bihurtu da. Eskualdeko hirugarren ardo inportatzaile handiena da (Txinaren eta Japoniaren atzetik bakarrik) eta hazkunde sendoa mantentzen du: 2017 eta 2023 artean, inportazioak % 24,5eko CAGR balioarekin eta % 15,1eko bolumenarekin hazi ziren. Gainera, kontsumitzaileen kopurua 10,2 milioitik 12,6 milioira igo da, eta hedatzen ari den alkohol-segmentu bakarra da. Egoera horretan, Espainia bosgarren hornitzailea da balioan, eta bigarrena bolumenean, 10 milioi litroekin; Euskal Autonomia Erkidegoko ardoen presentzia indartu egin zen 2023an, 1,2 M € eta 0,12 M litroko esportazioekin.

Merkatu handia, gaztea eta gero eta sofistikatuagoa da, batez ere Seoulen. Nahiz eta ardo beltza nagusi izan inportazioen % 82rekin, kontsumitzaile gazteak zuriak, arrosak eta apardunak bultzatzen ari dira, eta HORECA kanala funtsezko plataforma da premium eta "aurkikuntza" ardoetarako. Merkatuak ardoari ematen dion balioa prezioetan ere islatzen da: 2023an, euskal ardoen batez besteko prezioa 10,81 €-ra iritsi zen Korean, Japonian erregistratutako 6,85 €-tik gora.

Une hau bereziki egokia da Korean sartzeko edo sendotzeko. Hazkundera, premium potentziala eta merkataritza-ingurune ona uztartzen ditu: EB - Korea akordioak muga-zergak kentzen ditu, eta, beraz, lehiakortasuna kalitatean, posizionamenduan eta estrategian oinarritzen da.

SIWSE edari alkohol-dunei, inportatzaileei, banatzaileei eta horekari zuzendutako nazioarteko azoka bat da. Plataforma egokia da tokiko banatzaileak aurkitzeko eta B2B/B2C tasting-ak egiteko. SIWSE Hego Koreako ardo eta likoreen azoka handiena da, atzerriko ekoizleak nahiz inportatzaile korearrak, banatzaileak, horeca/retail kanaleko profesionalak,

Duela gutxiko edizioetan, herrialde askotako ehunka erakusketarik parte hartu dute; 7.000 edari alkohol-dun baino gehiago aurkeztu dira, nazionalak eta atzerrikoak — ardoa, whiskia, garagardoa, edari tradizional korearrak eta abar barne —.

AZOKAREN IZAERA

SIWSE AZOKAREN DATUAK

Eremu
esposizioa:

10.000 m²
baino
gehiago

2025ean
ordezkatutako
herrialdeak:

24

Erakusketariak
2025ean:

325 enpresa

Bisitariak
2025ean:

54.000

EUSKADI BASQUE COUNTRY STAND-A

Eusko Jaurlaritzak gune bat izango du **SIWSE 2026** azokan, ardoa eta sagardoa ekoizten duten eta parte hartu nahi duten enpresentzat.

Eusko Jaurlaritzak parte hartuko du, baldin eta parte hartzen duten enpresen gutxieneko kopurua badago.

Euskadiren ordezkariak gehienez ere enpresentzako gaitasuna izango du. Interesa duten enpresa guztientzat lekurik ez badago, hautaketa **inskripzio-hurrenkeraren arabera** egingo da.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikagai **Industrien Erregistroan inskribatuta dauden enpresa ekoizleek** baino ez dute parte hartuko **SIWSE 2026** azokan.

Enpresa erakusketariak azokara joango dela baieztatzen duenean, inskripzio-inprimakia eta ordainketa-egiaztagiria bidaliz, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko azoka egiten bada eta Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartuko duela berresten bada. Azoka egiten ez bada, HAZIK dagokion zenbatekoa itzuliko du.

AZOKAREN AURRETIK

- Enpresako ordezkari baten **bertaratze-konpromisoa** eta dagokion kuota ordaintzea.
- Enpresak **nahitaez agertu behar dira muntatze-egunean**, salgaiak jasotzen dituzten orduan, bai eta beren standak apaintzen amaitzeko ere, lehiaketa inauguratu baino behar beste lehenago.
- Azokako **egun guztietan eta ordutegi osoan zure standari kasu egitea**. Standari jaramonik egin ezean, enpresak bere gain hartuko du azoka-erakundeak egin dezakeen edozein zigor. Eta, gainera, eragina izango du etorkizunean Eusko Jaurlaritzarekin izango dituen partaidetzetan.
- Azoka amaitzean, produktu guztiak behar bezala **biltzea** eta standeko elementuak jaso ziren baldintza berberetan ematea.

AZOKAN ZE HAR

- Produktuak Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik fabrikatu behar dira.

AZOKAREN ONDOREN

- Eskatzen denean bete beharko duten **ebaluazio-inkesta** egitea.

PARTE-HARTZE EREDUA ETA KOSTUA

PARTE-HARTZE EREDUA

Eusko Jaurlaritzak parte hartzeko aukera ematen du:

• PARTEKATUTAKO stand eredua



PARTE-HARTZE KOSTUA

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak EAEko lehen sektoreko produktuak eraldatu eta merkaturatzen dituzten enpresen partaidetza sustatzen du bere ekintzetan.

Sektorearen ezaugarri bereziak direla eta, enpresa parte-hartzaile guztiak mota bakar batean sartzen dira (1. mota)

• Stand partekatua:

1.500 € + BEZ %21 = 1.815 €

Partaidetza-kuota ordainketa bakarrean ordainduko da.
Faktura HAZIk jaulki eta bidaliko du:

- Zenbatekoaren % 100 + % 21eko BEZa, inskripzioa egiten den unean
- Kuota ordaintzea ezinbestekoa da parte-hartzea baieztatzeko

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

IZENA EMATEKO EPEA: 2026KO URTARRILAK 20

Plaza kopurua mugatua da. Gogorazten dugu enpresak eskatutako dokumentazio guztia bidaltzen duenean baino ez duela izena emango: bsevillano@hazi.eus

Eusko Jaurlaritzarekin SIWSE 2026an izena emateko, enpresak honako dokumentu hauek bete beharko ditu:

IZENA EMATEKO INPRIMAKIA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik zehatz-mehatz transkribatuko dira azokaren katalogorako eta egiten diren gainerako sustapen-elementuetarako datuak.

IZENA EMATEAK

ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: Laboral Kutxaren **ES49 3035-0179-61-1791069900**, HAZI Fundazioaren izenean.

Laboral Kutxaren BIC: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena + SIWSE 2026"

Izena emateko unean, enpresak kuotaren % 100 + % 21eko BEZa ordainduko du.

HAZIren Finantza Sailak faktura bakarra bidaliko dizue kuotaren zenbateko osoarekin, azokan parte hartuko duzuela baieztatu ondoren.

ZURE ENPRESAK ZERGA-BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK EGUNEAN DITUELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK

JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

Enpresa parte-hartzaileak aukeratzeko, inskripzio-dokumentu guztiak jasotzen diren hurrenkerari jarraituko zaio, eta lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemaren Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

GARRANTZITSUA

FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, FAKTURA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO STANDEAN SARTU DELA JAKINARAZI ONDOREN, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKOAREN % 100 GALDUKO DU.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartuko:

- Enpresak baja ematen badio, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzeko.
- Enpresak ezin badu parte hartu Eusko Jaurlaritzaren standean lekuri ez dagoelako, ordaindutako zenbatekoa itzuliko zaio.
- Eusko Jaurlaritzak parte-hartzaileen ezinbesteko edo intsuzientziako arrazoiengatik ekitaldian parte hartzeari uzten badio, enpresek inskripzio-kuota itzultzeko eskubidea izango dute.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, HAZI Fundazioaren bitartez, honako zerbitzu hauek emango ditu:

1 Bidaia eta ostatua

Jarduera honetan pertsona batentzako bidaia eta ostatua sartzen dira. Izen-emateak itxi eta enpresen parte-hartzea baieztatu ondoren, ibilbideari buruzko informazio gehiago emango da.

2 Espazioaren kontratazioa

Sustapen-espazio batekin parte hartuko da, eta erakusketa-enpresa bakoitzarentzat partekatutako stand pertsonalizatueta banatuko da. Standak parte hartzen duten enpresentzako bilera-gune komun bat izango du.

3 Standaren dekorazioa

Erakustokiaren dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira Euskal Herriko standeko erakustoki guztientzat, eta honako elementu hauek izango dituzte:

- **Stand PARTEKATUA:** Erakusmahaia, aulkia, konexio elektrikoa, enpresa erakusketariaren errotulua, biltegi komuna, bilera-gune komunerako sarbidea.

Oinarrizko altzarien, elementu elektrikoen edo stand-etako behar elektrikoen edozein aldaketa, horiek handitzea edo aldatzea badakar, zuzenean kontratatuko du erakusketari-kide bakoitzak, eta enpresa dekoratzaileak zuzenean fakturatuko duen kostu erantsia izango du.

4 Standaren mantentze-lanak

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketa-, elektrizitate- eta ur-zerbitzuez, eta, oro har, standaren mantentze-lanez.

Potentzia elektrikoaren mugak eta stand bakoitzeko gehieneko kontsumoak egongo dira. Erakusleren batek gaindituz gero, haren kostua enpresa erakusleari jasanaraziko zaio.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

5 Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak salgaiaren bidalketa taldekatua antolatuko du, garraiolariak adierazitako puntu komunetik salgaia stand-ean entregatu arte. Garraioaren kostua partaidetza-kuotan sartuta dago.

Bidali beharreko botilen kopurua HAZI Fundazioak zenbatetsiko du. Upeltegiren batek behar baino botila gehiago bidali nahi baditu, gainkostua bere kontura izango da.

Enpresek merkantzia jasotzen duten bitartean bertan egon beharko dute, adierazten zaien orduan, bai eta beren standak jaialdia inauguratu baino behar bezain lehenago apaintzeko ere.

6 Kopa eta tu ontzi zerbitzua

Eusko Jaurlaritzak kopak (garbiketa barne) eta listu-ontziak kontratatzea koordinatuko du. Zerbitzu hau % 100ekoa da lehen kopa erretilurako eta tu ontzirako. Enpresa erakusketariak elementu gehiago kontratatu nahi baditu, eskaera zerbitzuaren hornitzailearekin kudeatu beharko du zuzenean, aldez aurretik erakundeari jakinarazita, azokan eskaeraren harrera koordinatzeko.

7 Azokaren katalogoan sartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusketari guztiak azoka-antolakuntzak argitaratzen duen katalogoan inskribatuta ager daitezen, eta bertan agertzen dira ekitaldiko erakusketari guztiak ([izena emateko formularioan](#) jasotako datuak jasoko dituzte).